

# ALDA

Aldaketa. Lana. Demokrazia. Alternatibak  
*Si tú cambias, el mundo cambia*

marzo-abril 2019ko martxoa-apirila • 6. zkia.

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

Mitxel  
Lakuntza,  
candidato a secretario general de ELA

**“Confrontamos  
porque es urgente  
un cambio social”**

LA CONQUISTA DE LA JUBILACIÓN  
A LOS 65 AÑOS CUMPLE UN SIGLO

> 4. ORR

HILTZAILE ISILA

>34. ORR

TEJIENDO REDES DE CUIDADO, HILANDO VIDAS

> 38. ORR



04

ERREPORTAJEA

100 años: De la huelga de La Canadiense al pensionazo



14

ELKARRIZKETA

Agustín Otxotorena: "Ezin dugu onartu Venezuela beste Irak bat izatea"



24

ELKARRIZKETA

Mitxel Lakuntza, propuesto a secretario general: "Cambian personas pero no el proyecto"

18

ERREPORTAJEA

Martxoaren 8a: Greba feminista historikoa!



ALDAko ahotsa   Editoriala .....	03
100 años del retiro a los 65 .....	04
Unai Apaolaza .....	10
Amparo Lasheras .....	12
Venezuela kolokan .....	14
Greba feminista historikoa!.....	18
El adiós de Adolfo Muñoz, Txiki .....	22
Entrevista con M.Lakuntza.....	24
Hiltzaile isila: amianto.....	34
Tejiendo redes de cuidados.....	38
ErALDATzen .....	44
KulturALDA .....	46
ALDArte Onean .....	47
PostALDA .....	48

## ERREDAKZIO TALDEA

Zuzendaritza: Iván Giménez

eta Nagore Uriarte.

Koordinazioa: Nerea Ispizua.

Lantaldea: Gorka Quevedo, Lander

Zabaleta, Gabriel Zeberio eta

Bixen Fernández Amezaga.

Argazkiak: ALDA eta Foku.

Argitaratze: ELA, Euskal Sindikatua.

Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00.

www.ela.eus/alda • alda@ela.eus

Lege-gordailua: BI-195-1998

Kopurua: 102.150 ale



# Soberanismo: de izquierdas o no será

Lo que viene sucediendo con el autogobierno en nuestro país, y también lo que está sucediendo en Cataluña, urge a seguir profundizando en la extensión social de la reclamación soberanista.

Se habla mucho del auge de las extremas derechas en toda Europa y también en el Estado pero, al mismo tiempo, se da una reivindicación de la política con mayúsculas, una auténtica apelación a la política para que tome las riendas, y que los intereses populares no queden al albur de los mercados y los poderes económicos. Es difícil no ligar esta emergencia de la derecha con la deserción social llevada a término por la socialdemocracia a lo largo de las últimas décadas. Por eso, este escenario, a pesar de su gravedad, supone también una oportunidad para ganar más sociedad desde la izquierda. Ésta puede ser también la hora de un auténtico soberanismo social que haga suyas las aspiraciones e intereses de las mayorías sociales precarizadas y empobrecidas.

En este contexto, el sindicalismo abertzale sigue siendo un actor clave en la extensión de ese soberanismo social. Un sindicalismo que se encuentra ante el reto de defender las cuestiones más elementales: su derecho a representar a la clase trabajadora vasca y su

poder negociador. Por eso, es urgente una acción política contra la estatalización y la centralización de las relaciones laborales.

Además de todo ello, es clave el trabajo que se viene realizando por una Euskal Herria soberana a partir de las alternativas en cuestiones como la alimentación, la energía, la moneda, las finanzas, el consumo o la movilidad. Quienes trabajan y militan en estos movimientos e iniciativas subrayan, con razón, que no hay solución para nuestros problemas sociales y medioambientales solo de la mano de los partidos y las instituciones, y que urge fortalecer la sociedad civil, la economía solidaria, los movimientos populares y también, lógicamente, el sindicalismo combativo.

Se puede concluir, por tanto, que en nuestro país sigue viva y bien representada la aspiración histórica de decidir cómo queremos afrontar los retos de futuro y nuestro modo de relacionarnos con el resto de naciones y estados. Defender nuestra soberanía política, económica, cultural, energética, alimentaria... es también una buena manera –además de necesaria– de resistir a la involución antidemocrática e hipercapitalista en la que estamos inmersos. **A**

**Os recordamos que Landeia se ha reconvertido en una revista bimestral dirigida a la acción sindical que, en principio, está concebida para ser enviada a los delegados y delegadas. Si no lo eres y quieres seguir recibéndola en papel, solicítala en: ELA, Komunikazio bulegoa. Barrainkua 13, Bilbao o Landeia@ela.eus. Por otra parte, en nuestra web: www.ela.eus podrás descargar la versión digital de ambas publicaciones, tanto ALDA como Landeia.**



# 100 años De la huelga de La Canadiense al pensionazo

Nuestras madres y padres nos legaron la jubilación a los 65 años, y la siguiente generación a la nuestra heredará ese logro reducido y vapuleado, si no lo remediamos en los próximos tiempos



IVÁN GIMÉNEZ

Hace justamente un siglo, más de 3.000 obreros se hacinaban en los calabozos del castillo de Montjuic (Barcelona), detenidos por el Ejército español después de que el Gobierno del conde de Romanones decretara el estado de guerra para obligar a las personas en huelga a volver al trabajo. Casi nadie hizo caso, y la represión se recrudeció, principalmente en Barcelona, hasta límites hoy difícilmente imaginables.

La situación social era explosiva, y como bálsamo para frenar el ímpetu revolucionario de la clase trabajadora, el ministro de Trabajo del rey Alfonso XIII se vio obligado a dictar varios decretos. El más famoso de ellos fue el que fijó la jornada laboral de ocho horas diarias, una efeméride cuyo centenario se ha recordado estos días en muchos medios de comunicación. No obstante, el otro decreto, el que por primera vez fijaba la edad de jubilación en 65 años, ha sido bastante menos recordado. Quizá porque esa conquista, de la que también se cumple un siglo, fue hace pocos años arrebatada de nuevo a la clase trabajadora, precisamente por los mismos representantes políticos y sindicales que dicen defenderla.

## RECORTE DE DERECHOS

Efectivamente, el 27 de enero de 2011, UGT, CCOO y el Gobierno de Zapatero acordaron un recorte general de las pensiones que retrasó la edad de jubilación de los 65 a los 67 años, además de ampliar el periodo de cálculo de las pensiones de los 15 a los 25 últimos años cotizados, entre otras medidas. Con la excusa de salvar las pensiones, las empezaron a suprimir, poco a poco, apelando



BARCELONA: Grupo de mujeres dirigiéndose en manifestación al Gobierno civil, para pedir el abaratamiento de las subsistencias. (Fotografías Marín)

a la teoría del mal menor que tan pésimos resultados ha dado siempre a la clase trabajadora.

Luego vino el Gobierno de Rajoy, que desligó la revalorización de las pensiones del IPC e impuso el llamado factor de sostenibilidad, otra artimaña para recortar las cuantías a percibir durante la jubilación. Mientras aquel frío enero de 2011, UGT, CCOO y Zapatero empezaban a cavar la tumba de las pensiones, ELA, LAB y otros sindicatos llevaron a cabo una huelga general que sigue siendo una referencia de resistencia contra unos recortes que semana a semana, ocho años después, siguen combatiendo muchas asociaciones de pensionistas de Euskal Herria.

¿Cómo puede ser que una conquista social tan importante como la jubilación a los 65 años fuera alcanzable en 1919

Gurasoengandik jaso genuen erretiroa 65 urterekin hartzeko araua. Gure ondorengo belaunaldiak lorpen hura murriztuta eta hondatuta jasoko du, konpontzen ez badugu.

y un siglo después parece imposible de recuperar? Para encontrar la respuesta, quizá lo más apropiado sea retroceder un siglo y conocer el grado de movilización y compromiso de una clase trabajadora consciente de sus posibilidades, de que la utopía no estaba tan lejos... pero también muy realista sobre las opciones existentes: nada vendría dado sin lucha. Ni la jubilación a los 65 años ni la jornada de ocho horas cayeron del cielo ni fueron gracias a cesiones de Alfonso XIII.

## LA SEMILLA DE LA MOVILIZACIÓN

La épica del centenario arranca el 5 de febrero de 1919, cuando se inicia la huelga de la empresa Barcelona Traction Light and Power, más conocida como La Canadiense por la nacionalidad de su primer accionista. Sin embargo, el contexto previo es importante. La Revolución Soviética de 1917, la fallida revolución socialista de Alemania (que le costó la vida a Rosa Luxemburgo en 1919) y la efervescencia del anarquismo ibérico (350.000 afiliados a la CNT) fueron el telón de fondo de grandes protestas sociales como





Orain dela mende bat, Espainiako Gobernuak (Alfonso XIII ordukoa erregea zen) 65 urteko jubilazioa legez onartu zuen, eta pentsioak, lehen aldiz, indarrean jarri zituen, langile guztientzat. Akaso errege haren neurri aurrerakoa ote zen, bere bihotz-onaren froga? Ezta pentsatu ere. Bartzelonako La Canadiense lantegiaren 44 eguneko greba erraldoiaren ondorio zuzena zen. Orduan posiblea zena, zergatik ia ezinezkoa ikusten dugu gaur, ehun urte geroago? Eta are larriagoa: ehun urte eutsi ondoren, nola onartu dugu jubilazioaren adina 67 urtera arte atzeratzea?

la que protagonizaron las mujeres catalanas ante la inflación de los productos básicos, o las revueltas del campo andaluz en agosto de 1918.

En ese escenario, varios oficinistas de La Canadiense fueron despedidos por reclamar su salario en febrero de 1919. La fábrica producía la fuerza eléctrica para toda la metrópoli barcelonesa (entonces 700.000 habitantes), desde su central ubicada en la avenida del Paral·lel. Todavía hoy sus tres antiguas chimeneas sobresalen por encima de los edificios de una de las zonas más emblemáticas de la capital catalana, como vestigios de una época de grandes luchas obreras. Hay quien las conoce como el 'skyline' de los desfavorecidos.

Al grito de "igual trabajo, igual salario", la CNT convocó una huelga que el 21 de febrero se extendió por toda Barcelona, a pesar de que UGT no la secundó. La ciudad quedó a oscuras, faltaba el suministro de gas y escaseaba el agua. El Gobierno central optó por militarizar las fábricas para garantizar los suministros, declarando el estado de guerra para reclutar forzosamente a las plantillas en huelga. La gente desobedeció, y más de 3.000 personas fueron encarceladas en Montjuic.

Sin embargo, la huelga no decayó, hasta que la dirección de La Canadiense tuvo que aceptar siete condiciones: readmisión de los despedidos, aumento de sueldos, garantías para evitar



represalias, jornada de ocho horas, abono del jornal íntegro en caso de accidente, 50.000 pesetas en indemnizaciones, y los salarios perdidos durante la huelga.

El 19 de marzo, más de 20.000 personas aceptaron desconectar la huelga, una vez liberados todos los trabajadores encarcelados, en un histórico mitin-asamblea que llenó la plaza de Toros de Barcelona, ocasión en la que Salvador Seguí se erigió para siempre en un mito del anarquismo.

#### VICTORIA POPULAR

El triunfo de la clase trabajadora desencadenó la ira de la patronal, que acusó de debilidad al Gobierno. Fue el inicio del pistolerismo en las calles de Barcelona, los rompohuelgas, el Somatén y otras historias siniestras... Tras 44 días de huelga, y con el 70% de la actividad de Cataluña paralizada, el Conde de Romanones se dio cuenta de la fuerza obrera e implantó por

ley la jornada de ocho horas con el decreto del 3 de abril de 1919.

Mucho más oculto suele quedar el recuerdo del decreto real que implantó la jubilación a los 65 años, promulgado el 11 de marzo de 1919, y que también obedece a la presión que sufría el Gobierno ante las crecientes movilizaciones obreras, cuyo mayor exponente en aquel momento fue la huelga de La Canadiense. Autores como Juan Baró Pazos han recalcado la importancia de aquel conflicto barcelonés ("marcó un antes y un después") en la lucha por las pensiones públicas.

En todo caso, el Gobierno ya estaba para entonces trabajando sobre el llamado Retiro Obrero Obligatorio, una medida que ya se estaba implantando en otros países europeos. Alexander Elu Terán, en su estudio sobre las primeras pensiones públicas en el Estado español, subraya que "la obligatoriedad del seguro social de vejez ofrecía algunas ventajas como



Arriba: A la izquierda, Tres chimeneas, 1919. A la derecha, Tres chimeneas, hoy. Son conocidas como el skyline de los desfavorecidos.

instrumento de pacificación social". Por un lado, se fijó la jubilación a los 65 años -con adelanto para "las profesiones agotadoras"- . En otros países, el retiro estaba entonces fijado en los 70 años (Gran Bretaña), 65 (Bélgica) ó 60 (Francia).

Además, aquel decreto sobre Retiro Obrero fijaba las cuantías y las fuentes de financiación para aquellas rudimentarias pensiones. Se trataba de una fórmula de capitalización, es decir, cada persona trabajadora acumulaba individualmente unas cantidades que luego iba cobrando una vez llegada la jubilación (cabe recordar que el sistema actual es de reparto: las pensiones se abonan con los ingresos que ese mismo año entran en el sistema mediante cotizaciones de las personas empleadas).

Otra diferencia sustancial es que todas las personas trabajadoras entre los 16 y los 65 años tenían garantizada la misma cuantía para su pensión: una peseta diaria a partir de su jubilación. Dicha cantidad era aportada por dos fuentes distintas, el Estado (una peseta por mes trabajado) y la patronal (3 pesetas por mes trabajado). En 1919, por tanto, en el primer ensayo de la jubilación en el Estado español, las personas trabajadoras estaban exentas de costearse su propia pensión, lo que por un lado explica la virulencia con que las empresas se opusieron a dicha medida, pero también ilustra la fuerza con que el movimiento obrero se empeñó en esta lucha social.

#### COMPROMISO INTERGENERACIONAL

Llegados a este punto, no estaría de más interpellarnos a nosotras mismas sobre la responsabilidad generacional que recae sobre nuestras espaldas. Y no es una pregunta cómoda. Nuestras madres y padres nos legaron la jubilación a los 65 años, y la siguiente generación a la nuestra heredaría ese logro reducido y vapuleado, si no lo remediamos en los próximos tiempos.

*"Aita, ¿por qué el abuelo se jubiló a los 65 años y yo me jubilaré a los 67?"*

No es una pregunta que queremos escuchar. Hay tarea, por tanto. ▢

## la inork egiten ez dituen galderak

Bizi-itxaropena azken urteetan asko luzatu dela argudiatuz (1919n, jaiotze unean 41 urtekoa zen, 65 urtera iristen zirenak 10 urte gehiago bizi baziren ere, batz-beste estatistikaren arabera), askok diote pentsioak ez direla bideragarriak. Gainera, teoria hau indartzeko, gero eta jubilatu gehiago daudela –eta langile gutxiago– azpimarratzen dute. Hain justu, hauek ziren 2011n UGTk, CCOOk eta PSOEk erabili zituzten argudioak orduko murrizketa gauzatzeko.

Hala ere, oso jende gutxi gogorarazten du pentsioak diruarekin ordaintzen direla, nahiz eta oso argia izan: hau da, sortzen den ondasunarekin. Eta aberastasun hori (BPG deitzen duguna, Barne Produktu Gordina), azken mendean populazioa baino askoz gehiago handitu egin da. Beraz, ondasuna badago. Aberastasuna nola banatzen den da benetako afera, beti bezala, lan egiten duten eta jubilatuak daudenen artean, hain justu. Eta jakina, pentsioak ordaintzeko ondasuna nondik ateratzen den: zergatik langileen kotizazioetatik bakarrik? Eta zerga orokorretatik, zergatik ez? Eta kasu honetan, zein zergetatik, langileok ordaintzen dugunetatik bakarrik, ala enpresen etekinetatik?

Bestetik, norbait entzuten badiozue "pentsioen arazoa da jendea gehiegi bizi dela", gonbidapen zuzena egin diezaiokezue: "Horrela bada, zuk nahi duzun unean, mundu honetatik alde egin ahal duzu, eta beraz... bat gutxiago pentsioak ordaintzeko". Baina, jakina, hori argudiatzen duenak beti pentsatzen du sobera daudenak... besteak direla. Agian, beste argudio bat mahaigaineratu behar dugu: zein da, behintzat European, azken mendeko zibilizazioaren lorpen handiena? Bizi-itxaropenaren luzapena, ezta? Eta hori arazo bihurtuko dugu?

Jon Fano, Pentsionistak Martxan eta Bizkaiko Prentsiadunen Mugimenduko Kidea

## “Toledoko itunari mozorroa kentzeko beharrean gaude”



» Egun hauetan mendeurrena bete da 65 urteko erretiro-adina finkatu zenetik. Ehun urte geroago aurrerapen hori galdu dugu. Belaunaldi gisa, handia da gure ardura, ezta?

Halaxe da, Espainiako estatuan 1919ko martxoaren 11n ezarri zen dekretuz Derrigorrezko Erretiroa. Zahartzaroko nahitaezko aseguru bat zen, 65 urtetik aurrera prestazio bat jasotzeko eskubidea ematen zuena. Urte batzuk geroago amatasun baja onartu zen, eta askoz beranduago, langabezia-asegurua.

Espainian baino lehenago, inguruko beste hainbat herrialdetan onartu zen Derrigorrezko Erretiroa, hala nola Frantzia, Ingalaterra edo Alemanian, eta langile borroka handien eskutik etorri zen. Hurrengo urteetan segida izan zuten borroka horiek, eta, besteak beste, Gizarte Segurantzaren sistemak sortzea ekarri zuten.

Mendeurrena gogoan, martxoaren 11n, Hego Euskal Herriko Pentsiadunen Mugimenduak, baita estatuko gainerako mugimenduak ere, esanahi berezia eman genion data eta lorpen horri, eta nabarmendu genuen gaur egungo erretiratuak eta pentsiadunak langileak izan ginela lehen, garai bateko langile- eta herri-borroka

haien katebegia garena, eta prest gaudela Babes Sozialeko Sistema Publikoen alde borrokan jarraitzeko, horien bidez pentsio duinak ez ezik arreta osoa eskainiko duten zerbitzu publikoak ere bermatzeko, batez ere adineko pertsonentzat.

» Aurreratu al dugu zerbait ehun urteotan?

Zalantzarik gabe, aurrera egin dugu, baina horrek ez du esan nahi azken hamarkada hauetan atzera egiten ari ez garenik; izan ere, mundu osoan, baita Europan ere, kapitalismo neoliberala oldarraldi eta eraso bortitza bultzatzen ari da langileen eskubideen kontra eta, bereziki, segurtasun eta babes sozialeko sistemen kontra.

Belaunaldi guztioi dagokigu gure eskubideen alde borroka egitea. Hego Euskal Herriko pentsiadunen mugimendua gure pentsioen alde ez ezik etorkizuneko pentsioen alde ere ari da borrokan. Eta langile klaseari, eta bereziki sindikatuei, dagokie borroka egitea, langileen gaur egungo lan eskubideen alde ez ezik etorkizuneko segurtasun eta babes sozialeko sistema ahalik eta zabalenak izatearen alde. Eguna joan eta eguna etorri, gero eta premiazkoagoa da mugimendu sindikalak, pentsiadunen mugimenduarekin eta beste gizarte-sektore batzuekin batera, mobilizazio bateratuak koordinatzea, guztiok batzen gaituzten eta guztion interesekoak diren eskubide eta askatasunen alde.

» 65 urteko lorpen hura berreskuratzeko biderik ikusten duzue?

Borroka batzuk galdu ditugu: 35 orduko astea lortzeko borroka, erretiro-adina 67 urtera atzeratzea, pentsioak arautzeko soldataren kalkulua zehazten duen denbora luzatzea... Hala ere, ez dugu zalantzarik erretiro-adina berriro ere 65 urtean finkatzea lor dezakegula, eta jasaten ari garen atzeraldi eta murrizketak geldiarazi ditzakegula. Jabetzen gara zeinen larriak diren jasaten ari garen arazoak: enpresen atomizazioa,

indibidualizazioa, prekaritatea, negoziazio kolektiboaren aurkako gero eta eraso handiagoak, gure borrokan aurkako errepresio politikoa eta enpresen errepresioa...

Baina gure indarrak elkartzen baditugu eta gure borroka koordinatzen, uste sendoa dugu egoera hau iraultzeko aukera egon badagoela. Horretarako, batasunerako borondatea, batuko gaituzten proposamen eta aldarrikapenak adosteko egiazko prestutasuna eta, batez ere, borrokatzeko eta mobilizatzeko borondatea behar dira. Harrotasunez esan dezakegu Hego Euskal Herriko pentsiadunen mugimenduak lortu duela hori.

» Toledoko Ituna orain dela 25 urtekoa bada ere, jende askok uste du betiko gauza dela eta mugiezina...

Hego Euskal Herriko pentsiadunen mugimenduan, gutxieneko sektore batzuek esperantzari eusten diote, Toledoko Itunaren negoziazioek emaitzak emango dituztela. Nik ez dut inolako esperantzarik, ez dut uste Toledoko Ituna deritzon horretatik ezer onik iritsiko zaigunik. Urteen joanean, Ituna bera hor izateak eta hortik etorri diren gomendioek erakutsi digute emaitzak kaltegarriak izan direla. Areago, CCOO eta UGT sindikatuek justifikatu eta bermatu egin dituzte Itun horren erabakiak, eta horrek gizartea desmobilizatzea eragin du; horixe da, hain zuzen, enpresariei eta kapitalari interesatzen zaiona.

Otsailaren 20ko bilera da horren azken erakuslea; izan ere, bilkura horretan, ez dute konpromiso sendorik hartu 2020. urtetik aurrera pentsioetan KPlaren araberrako igoera ezartzeko. Toledoko Itunari mozorroa kentzeko modu bakarra dago: Itunak zer esan nahi duen eta zer defendatzen duen erakustea, lan pedagogiko hori egitea. Horrekin batera, mobilizazio indartsu eta bateratua bultzatu behar dugu, jendeak benetan sinetsi dezan eta ilusioa izan dezan Ituna bertan behera utz daitekeela eta gure interesak defendatzeko eta hobetzeko beste aukera batzuk lor daitezkeela.

» Adinetik harago, zer har daiteke pentsio duintzat?

Europako Gutun Sozialaren gomendioak eta Lanbide-arteko Gutxieneko Soldataren eta gutxieneko pentsioen erreferentziak aintzat hartuta, herrialdeko batez besteko soldataren %60 izan beharko litzateke. Hego Euskal Herrian, urteko batez besteko soldata gordina 27.000 euro pasatxokoa da, eta, beraz, lanbide-arteko gutxieneko soldata eta gutxieneko pentsioak 1.150 eurotik gorakoa izan beharko luke, 14 pagatan.

“El movimiento de pensionistas lucha por nuestras pensiones y por las del futuro. Nuestra reivindicación de una pensión mínima de 1.080 euros es factible. La estamos pelando y la vamos a conseguir”

Hego Euskal Herriko pentsiadunen mugimenduko kideak 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta 1.200 euroko lanbide-arteko gutxieneko soldata ari gara eskatzen. Gutxieneko pentsioaren zenbateko hori bere egin du estatu osoko pentsiadunen mugimenduko gehiengo zabalak. Madrilen eta batez ere Gasteizko Gobernuaren aurrean aurkeztutako datuek erakusten dute gutxieneko horretara iristeko pentsioen osagarria bere gain har dezakeela EAJ buru duen gobernuak, eta, beraz, gutxieneko hori gauzagarria dela gure herrialdean.

Arazoa da Gasteizko Gobernuak ez duela horretarako inolako borondaterik; aitzitik, enpresariei eta ahalmen handiko sektoreei pribilegioak ematen jarraitzeko interesa lehenesten du.

» Zer-nolako mobilizazioak prestatzen ari zarete?

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako pentsiadunen plataforma bateratuetako ordezkariak maiztasun jakinez biltzen gara Gasteizen. Otsailaren 21ean, aho betez erabaki genuen astelehenero kontzentrazioak egiten jarraitzea, eta martxoaren 8ko greba feministari babesa ematea. Martxoaren 11n, Derrigorrezko Asegurua lortu zela ehun urte beteko dira, eta mugarri hori gogora ekarriko dugu.

Gainera, apirilaren 13an eta maiatzaren 11n, hurrenez hurren, apirilaren 28ko hauteskunde orokorrak eta udal, foru eta Europako hauteskundeak baino 15 egun lehenago, probintzia mailako mobilizazioak egingo ditugu gure herrialdeko lau hiriburuetan. Beste sektore sindikal batzuen babesa izatea espero dugu, batez ere mugimendu sindikalarena.

Elkarrizketa amaitzeko, nabarmendu nahiko nuke oso garrantzitsua dela gure mugimendu eta plataformetara ahalik eta pentsiadun gehien biltzea, batez ere sindikatuetan eta langile mugimenduen borroketan esperientzia duen jendea. Ahalik eta pentsiadun gehienek bat egitea funtsezkoa izango da mugimendua indartzeko. Horien artean ELA sindikatuko afiliatu eta jarraitzaile asko izango dira. Horrek are gehiago sendotuko luke gure erreferentzialtasuna eta garrantzia gobernu-erakundearen aurrean, eta hobekuntza esanguratsuak lortzeko bidea erraztuko luke.



Unai Apaolaza, irakaslea eta idazlea

## Burujabetza ekintza bat da

El sujeto de la desobediencia es reducido y fácil de controlar por el statu quo neoliberal. El sujeto que lleva a la práctica la soberanía, en cambio, puede ser amplio y es difícil neutralizarlo.

**I**raultza frantsesa mugarrria da soberania ulertzeko moduan; soberanoa, erregea beharrean, herria zela aldarrikatu baitzuen. Soberanoa zen subjektu berri hori mugatu egin behar zen, herria era batera edo bestera zehazteak ondorio politikoak baitzitu. Subjektu berria mugatzen zuten errelatoak estrategia politikoak ziren, finean. Herri soberanoa eta nazioa berdinduz, momentu historiko horri erantzun zion nazionalismoaren sorrerak. Marxismoak ere gauza bera egin zuen, burujabea langile klasea zela esaterakoan. Orduz geroztik, burujabetzaren subjektuaren nolakotasunaz aritzea izan da teoria politikoaren egitekorik garrantzitsuenetakoa.

XVIII. mende bukaeran, Frantziako kolonia zen Haitin, bertako esklabo beltzek, *liberté*, *égalité* eta *fraternité* oihukatuz iraultza egin zioten arraza zuriko Frantzia iraultzaileari. Frantziako herritarrek (gizonek), iraultzaren bidez, subirautea monarkiatik herrira (burgesiara praktikan) eraman zuten modu berean, Haitiko esklaboek, ekintzaren bidez, zurien eskuetatik gehiengoa ziren esklaboengana pasa zuten soberania. Garesti ordaindu zuten beraien ausardia.

Haitiko adibideak balio digu, oraindik ulertzea kosta egiten zaigun hori azaleratzeko: burujabetzaren ekintzarik gabe ez dago burujabetzaren subjekturik. Beste era batera esanda, nahiz eta errelato nazionalistak edo marxistak, adibidez, burujabetzaren subjektua, alde aurretik, oso ondo zehazten saiatzen diren, burujabetza ekintza egiten ez den bitartean, ez da burujabetzaren subjekturik existituko. Burujabetzak ekintzaren dimentsioa ezinbestekoa du, hortaz. Zentzu horretan, burujabetzak badu Judith Butlerren performatibitatearen ideiatik asko.

### 2017ko URRIAREN LEHENEKO ADIBIDEA KATALUNIAN

Kapitalismoaren egungo aurpegia den neoliberalismoak bereizgarri nagusi bat du: herritarrei beraien bizitzan inguruan erabakitzeo aukera murrizten die. Soberania kentzen die, alegia. Horregatik, burujabetza eskuratzeko ekintzek talka egin beharko dute, gero eta sarriagotan, indarrean dagoen markoarekin eta, ondorioz, legediarekin. Soberania, gauzatu, legea hautsiz gauzatuko da nahi baino gehiagotan. Bai autodeterminazioari dagokionean, energiaren esparruari dagokionean, bizitza duinari dagokionean, lan baldintzei dagokienean.... (des) Obedientzia izango da subjektua (nor bait) izateko baldintza.

La Revolución francesa es considerada un hito por trasladar la soberanía de la monarquía al pueblo. El pueblo que la Revolución francesa empoderó era masculino, blanco y burgués pero, a pesar de ello, también sirvió para abrir el camino para que otros sectores de la población tomaran conciencia y emprendieran el camino de la soberanía. Todas estas experiencias nos sirven para darnos cuenta de que el sujeto de la soberanía se forma una vez realicemos un acto concreto de la soberanía. La soberanía en abstracto no polariza ni moviliza, surge en actos concretos.

El acto de soberanía, en el contexto neoliberal que vivimos, muchas veces se tendrá que llevar a cabo no respetando la ley que está en vigor. Pero no hay que plantearlo como un acto de desobediencia, sino como un acto de obediencia al colectivo propio. Es decir, como un acto de autodeterminación. El sujeto de la desobediencia es reducido y fácil de controlar por el status quo neoliberal. El sujeto que lleva a la práctica la soberanía, en cambio, puede ser amplio, y es difícil de neutralizar.

Frédéric Grosek bere *Désobéir* liburuan dionez, desobeditzea norberak bere buruari edo kolektiboari obeditzea da. Horrela, desobedientziatzat hartzen ditugun ekintza asko, berez, autodeterminazio ekintzak lirateke; burujabetza ekintzak, alegia. Marina Garcés ere, ideia beraren bueltan dabil, bere Ciutat Princesa liburuan, Urriaren 1eko referenduma desobedientzia ekintza bat beharrean, autodeterminazio ekintza bat izan zela dioenean. U1ean, Kataluniako herriaren zati zabal batek bere erabakitzeo ahalmena praktikara eraman zuen, hori egiteak indarrean zegoen legediaren kontra egin arren. Helburua ez zen Espainiako legea ez errespetatzea, norberaren erabakia aurrera ateratzea, baizik. Ñabardura honek badu bere garrantzia, desobedientzia egiten duen subjektua txikia eta kontrola erraza baita, autodeterminazioa praktikara eramateen duena, berriz, zabala eta kontrolagaitza.

Urriaren 1 eta ondorengo egunetan bizitako ezin daiteke azaldu ez unionismoaren instrumental teorikoarekin ezta ordura arte independentismoak erabilitakoarekin ere. Mediazio

egitura independentistek kontrolatu gabeko burujabetza ekintza izan zen eta, horregatik, independentismoak zeukan kristalezko sabaia apurtu zuen. Alderdien mugak gainditu zituen ekintza hark subjektu burujabe berriaren ernamuina erakutsi zuen. Bizi dugun testuinguruan, independentismo garaile batek beharko lukeen subjektuaren ernamuina, alegia. Hala ere, U1eko autodeterminazio ekintzak burujabetzaren subjektua berritu eta indartu arren, burujabetza ekintza berriekin elikatzen jarraitu ez denez, independentismoa U1 baino lehenagoko egoerara itzuli da.

Euskal Herria ere, ez dago burujabetza zentroan jartzen duen mundu mailako ezkerrean joeratik at. Hala ere, orain dela urte gutxi hegemonia kontzeptuarekin egin genuen moduan, orain burujabetzaren kontzeptua fetixizatu dugula uste dut. Ondorioz, fetixte guztiekin gertatzen den moduan, bere magia galdu ez dezan, eskura ezina behar du izan; hau da, zehaztu gabea. Horregatik, ekintza konkreturik aipatu gabe, burujabetza kontzeptua darabilgu helburu

politiko eta ekintza konkretuen lokatzetatik aske, burujabetzaren alde gaudela adierazte hutsak jendea erakartzen lagunduko digulakoan.

### EKINTZA ZEHATZAK BEHAR DIRA

Behin hona iritsita, gomendagarria da Ernesto Laclauri zuzenean begiratzea, gurean ohikoegia den Iñigo Errejoren galbahetik pasatu gabe, alegia. Laclauk, unibertsalak nagusitasuna lortu duten partikularrak direla argitu zigun, aditzera emanaz, unibertsal abstraktuen erabilera ez dela oso eraginkorra politika eraldatzaileentzat. Horrela, izen abizenik gabeko burujabetzaren aldeko aipamen eta aldarriek, ekintza konkreturik ez dakartenez beraiekin, ez dute polarizaziorik sortuko, ez dute jendea erakarriko, eta ekintzarik ez dagoenez, ez dute soberaniaren subjektua sortu edo indartuko. Laklauri adierazitakoari tiraka, sekuentziak alderantzizkoa izan beharko luke: lehenik ekintza konkretuak egoki seinalatu eta hauek aurrera ateratzearekin bat indartu edo sortuko da soberaniaren subjektua; jendea ez baita burujabetzagatik abstraktuan mobilizatzen burujabetza ekintza konkretu bategatik, baizik.

Bastillara sartu zirenek, Haitiko lurjabeen etxeak erre zituztenek, sufragistek, Ikastolak sortu zituztenek, Granman ontziratu zirenek, Intsumituek, Bolibiako uraren pribatizazioaren kontra egin zutenek, Neguko jauregia hartu zutenek, U1ean botatzera joan zirenek... egin zuten moduan, gaur egungo Euskal Herrian ere, burujabetzarako helburua mahaigaineratu (Euskal Errepublika) eta bertara iristeko ekintza konkretuak zehazteko garaia da. Argi baitago, bizi garen munduan, ekintza (des)obedienterik gabe ez dagoela burujabetzarik. Existentzia dugu jokoan, beraz. **A**



Amparo Lasheras, periodista

## 3 de marzo del 76: La memoria de un sueño

Martxoaren 3ko gertakariak argiro erakutsi zioten euskal langileriari borroka dela irabazteko bidea, eta sistemaren bidegabekeriei aurre egiteko tresnarik onenak greba, batasuna, antolamendua eta elkartasuna direla.

**E**l 3 de Marzo de 1976, las fuerzas de la sinrazón y de la muerte, bajo las órdenes de Manuel Fraga Iribarne y de Martín Villa, asesinaron a cinco compañeros y masacraron a más de cien. Ésta es la parte más sangrienta y dolorosa del 3 de Marzo. La parte que más recuerda la prensa, la radio, la televisión, los partidos... donde prevalece el recuerdo de las víctimas, pero desprovistas, despojadas de la belleza de sus sueños..."

Estas palabras las escribieron Imanol Olabarria y Jesús Naves al cumplirse el 36 aniversario de aquellos trágicos sucesos del 76. Ambos fueron miembros de las Comisiones Representativas y activistas destacados en la organización de la clase trabajadora de Gasteiz, por lo tanto, sus palabras tienen, además de memoria, el valor de lo vivido en la vanguardia de una lucha que marcó un hito en el movimiento obrero.

Tal vez, las afirmaciones de Naves y Olabarria suenen como una crítica nostálgica para quienes observan el 3 de Marzo desde la distancia

de cuatro décadas, construidas en los principios de la Transición y en los pactos del 78 entre el capital, el empresariado y los sindicatos mayoritarios, correas de transmisión de la izquierda institucionalizada, encargada de garantizar la "paz social". Las impresiones de Naves y Olabarria encierran la reivindicación de una memoria que debe incluir no solo los nombres de los obreros asesinados en un día de represión extrema, sino también la razón por la que cientos de hombres y mujeres se unieron, se organizaron y se enfrentaron a la patronal secundando una huelga indefinida, a través de la cual tomaron conciencia de la fuerza y el orgullo que conlleva ser clase trabajadora y sujeto de transformación social.


### NO FUE UNA PELEA PERDIDA

Contra lo que algunos pueden pensar las huelgas del 76 no fueron una pelea perdida. El legado que el 3 de Marzo ofreció al pueblo trabajador vasco fue demostrar que si se lucha se puede ganar, y que la huelga, la unidad, la organización y la solidaridad constituyen las mejores armas para enfrentarse a las tropelías del sistema.

Sin embargo, todo lo que se consiguió entonces, en aquel marzo de un franquismo agonizante, lo que se exigió en cada minuto de huelga y movilización, en cada dolor por los compañeros asesinados, ahora, en este tiempo de incertidumbre, ha desaparecido.

Durante 43 años, los gobiernos español y vasco han ido adaptando las relaciones laborales a los intereses del capital. El neoliberalismo y la desregulación económica que Thatcher y Reagan iniciaron en los 80 han desmantelado el estado de bienestar de las políticas keynesianas, hasta certificar su muerte en la crisis de 2008. Hoy, la Reforma Laboral, la falta de empleo, la precariedad, los bajos salarios, la desigualdad, la falta de derechos, la privatización de los servicios públicos o la explotación más descarnada evidencian la ferocidad de un sistema que ha entrado en un devastador terreno de esclavitud y deshumanización tecnológica, de exclusión y pobreza, equiparable a situaciones vividas en el siglo XIX.

La "gran diversidad" que preconizó el economista Paul Krugman, "proceso por el cual se produce el enriquecimiento gradual de los más ricos y el empobrecimiento



de todos los demás", es hoy una desoladora realidad en Europa, en el Estado y también en Euskal Herria, en ese "paraíso" económico del que habla, con absoluto cinismo, el lehendakari Urkullu. Y es que, en este país, el neoliberalismo y la "reconquista del poder por las clases dominantes" tienen en el PNV y en el Gobierno de Lakua unos grandes y fieles valedores.

### UTOPIÁS ALCANZABLES

El movimiento obrero del 3 de Marzo no volverá, es cierto.

1976ko martxoaren 3an heriotzaren eta zentzugabekeriaren indarrek, Manuel Fraga Iribarne eta Martin Villaren agindupean, bost langile hil zituzten, eta ehundik gora zauritu. Hori da Martxoak 3ren alderik odoltsuena eta mingarriena. Eta hori da gogora gehien ekartzan digutena egunkariak, irratiak, telebistak eta alderdi politikoeak. Alde ilun horretan biktimen oroitzapena gailentzen da haien ametsen edertasunaren gainetik...

Baina baten batek pentsa dezake 76ko greba haiek alferrik izan zirela. Baina ez. Hala ere, hiltorian zegoen frankismo haren martxoko greba eta mobilizazio guztietan irabazitakoa, galdutako lankideen minez eta oinazez lorturikoa, kolokan dago orain, ziurgabetasunaren garai hauetan.

Pero hay que recordar que ocupa un lugar importante en la memoria de la lucha de clases. Un merecimiento que, al menos, debería servir para inquietar a la clase trabajadora actual, a la que el sistema le ha arrebatado el compromiso y la conciencia de serlo.

El historiador catalán Josep Fontana decía que la "historia de la humanidad está llena de momentos de lucha por la libertad y la igualdad, de revueltas contra los opresores y de intentos de construir sociedades más justas". "Los defensores del orden establecido –afirmaba– siempre han querido aplastarlos; para ellos, la sujeción y la desigualdad son necesarias para asegurar su prosperidad". Pero también creía que en lugar de resignarse hay que enfrentarse, imaginar e "inventar un mundo nuevo que pueda ir reemplazando al actual, que tiene sus horas contadas".

En la Comuna de París, en Mayo del 68, y también en la Gasteiz de 1976 sucedió algo de eso; algo que, como afirmó Lenin, tiene mucho que ver con la importancia de los sueños revolucionarios en la construcción del futuro.

En 2012, escribí un libro sobre el 3 de Marzo. Lo terminé con una reflexión que todavía me preocupa y me ilusiona porque significa que el capitalismo no me ha matado de tristeza. "No son los años del pasado los que me abruman, son los del futuro que aún no se ha escrito los que requieren respuestas urgentes, a los que exijo, como en el 3 de Marzo del 76, una utopía alcanzable". **A**



# “Ezin dugu onartu Venezuelak beste Irak bat izatea”

Agustín Otxotorenak, Venezuelan bizi den euskal enpresariak, Ameriketako Estatu Batuen (AEB) esku-hartze militarra justifikatzeko nazioarteko komunikabideak egiten ari diren manipulazioa salatu du

## NEREA ISPIZUA

Agustin Otxotorenak euskaldun, chavista eta independentistatzaletzat jotzen du bere burua. Bere asmoa ez da, inondik inora, ematen dituen hitzaldietara bertaratzen den jendeak Venezuelari buruz kontatzen duena hitzetik hortzera sinestea. Bera konforme da iritzi publiko kritikoa sortzen lagunduta, jendea gai izan dadin Karibeko herrialdeetarik iristen diren berriak auzitan jartzeko eta kontrastatzeko. Komunikabideen manipulazioaren aurrean iritzi publikoaren begiak zabaltzea da bere helburua; izan ere, bere aburuz, Venezuelak Ameriketako Estatu Batuen esku-hartze militarra justifikatzeko estrategian beste beso bat dira komunikabideak. Agustín Otxotorenak oroitu digu – beldurrez oroitu ere – zer gertatu zen Irakekin eta zer ondorio lazarriak izan zituen.

» **Hilabete eta erdi daramazu Euskal Herrian eta Espainian barna, Venezuelari buruzko hitzaldiak ematen. Nor da Agustín Otxotorenak eta zein dira bere helburuak?**

Errenterikoa naiz, 55 urte ditut, eta Euskadi eta Venezuela artean bizi izan naiz 1999tik 2007ra, eta geroztik herrialde hartan bizi naiz. Urtarrilaren 16an etorri nintzen Euskadira, kontu pertsonal bat tarteko, eta hemen harrapatu ninduen hilaren 23ko eromenak.

Komunikabideak hor hasi ziren esaten Venezuela krisi humanitario jasaten ari dela, eta gerra zibila lehertzeko zorian dela. Oso kezkatuak, familiarekin eta lagunekin jarri nintzen harremanetan, eta jakinarazi zidaten herrialdea lasai dagoela. Komunikabideen eraso bortitz hori, errealitatea erabat desitxuratzeko joera hori, konstante bat da, eta, beraz, gizarte-sareetan ekintzaile izan naizenez, lan horri heldu nion, pentsamendu bakar horri aurre egiten saiatzeko eta benetako Venezuela erakusteko helburuarekin.

Facebookeko nire kontuaren bidez, Burgosen hitzaldi bat ematea eskaini zidaten, eta hortik, egutegi oso bat sortu zen Euskal Herrian eta Espainian barna. Hitzaldi horietako askotan Willy Toledo izan dut lagun.

» **Zer dago honen guztiaren atzean?**

Azken 20 urteotan eginahalean ari dira Venezuelako gobernuak erabiltzen. Chávezen aurka saialdi

Los medios de comunicación internacionales son un tentáculo más de la estrategia para justificar una intervención militar de los EEUU en Venezuela.



Agustín Otxotorenak enpresarioa da Venezuelan.

asko izan ziren, eta Maduroren aurka hasiera-hasieratik izan da agenda kolpista bat. Orain estrategia Venezuela ekonomikoki blokeatzea da, herrialdearen kontuak izoztea eta hornidurarik gabe uztea, jendea gaizki pasatzen has dadin eta Maduroren kontra altxa dadin. Beraz, etsipena sortzeko agenda ari dira ezartzen. Eta plan horrek huts egiten badu, AEBek ahobizarrak gabe egin du mehatxua, herrialdean esku-hartze militarra egiteko.

» **Zergatik sortzen du Venezuelak horrenbeste traba?**

ABEentzat Venezuelaren egiazko arriskua da herrialde burujabea dela, eta ez dela haien interesen aurrean makurtzen. Eta gero hor dago petrolio eta herrialdearen aberastasun naturala, jakina. Chavismoa erorarazi nahi dute, Latinoamerikan erauzi beharreko gaixotasun bat balitz bezala.

» **Venezuelako herritarrak gosea pasatzen ari al dira?**

Venezuela gaizki pasatzen ari da, ukaezina da hori. Hornidura arazoak daude, baina herrialdea ez dago larrialdi sozialeko egoeran.

Eta ezin dugu ahaztu Venezuela Hego Amerikan dagoela, eta munduaren alde horretan pobrezia arazoa nahiko orokorra dela, eta egoera parekoa edo are okerragoa dela, adibidez, Brasil iparraldean, Kolonbian edo Perun. Venezuela kolonia izan zen, oraindik ere pobrezia egon badago, baina egoera hau duela 200 urtetik dator, ez da Chavismoaren ondorio, eta ezin da konpondu 20 urtetan.

» **Gauzak dauden moduan, zerk bultzatzen zaitu AEBen eta Venezuelako oposizioaren aurka hain agerian aritzera?**

Venezuelak aurpegia eta begiak ditu, nire lagunak eta nire jendearen aurpegia eta begiak. Eta herrialdea

## Un teléfono móvil y Facebook como armas


La decisión de Agustín Otxotorenak de difundir a través de las redes sociales la otra cara de Venezuela le ha convertido en héroe para unos y villano para otros. A lo largo de la entrevista relata que desde que en 2015 publicó en su cuenta de Facebook fotos de supermercados a rebosar de comida -que se convirtieron en virales- cuando Venezuela supuestamente atravesaba una tremenda hambruna que obligaba a la gente a comer perros y gatos pasó a entrar en la lista negra de la oposición y de la comunidad vasca en este país. “Solo digo lo que veo y expongo mi idea de Venezuela. Y no lo hago buscando fama, sino porque creo en este país y sus gentes. Mi gran arma es un teléfono móvil y facebook, algo muy humilde”, explica.

Un David comunicativo que le ha metido ya varios goles al Goliath de los grandes medios y agencias de información internacionales. Y es que está en juego la batalla por la opinión pública mundial. En opinión de Otxotorenak, la estrategia actual de la oposición venezolana, en manos de EEUU, es convencer al mundo de que el país vive una crisis humanitaria sin precedentes, de que el presidente legítimo de Venezuela es Juan Guaidó y que si Nicolás Maduro (con 6,5 millones de votos) se niega a abandonar el gobierno se justificaría una intervención militar en Venezuela. O se va o le echan. “Su estrategia es la misma que llevaron a cabo con Irak. Entonces los medios de comunicación nos decían que había armas de destrucción masiva y justificaban una intervención militar en este país. Hoy sabemos que lo de las armas era mentira pero han muerto cientos de miles de personas y el país está devastado”.

Otxotorenak no quiere ese futuro para un país que ha aprendido a amar. “Venezuela tiene derecho a ser un país libre, independiente y soberano”. ■







2015ean Otxotorenak gezurtatu egin zuen herrialdean omen zegoen gosetea, sare sozialetan zabaldu eta biral bihurtu ziren argazkiak medio.

amore ematen badute, baita ere. Ameriketako Estatu Batuek Venezuela birkonkistatzeko premia dute.

#### »Zer iritzi du Venezuelako euskal komunitateak?

Euskal presentzia eta, areago, euskal eragina oso garrantzitsua da. Jesuiten eskola eta unibertsitatea Caracasko eremu onenean kokatuta dago, eta hor ikasia da Venezuelako elitea azken 100 urteotan. Hezkuntza-zentro horren burua aita Ugalde da, kolpista aitortu bat. Herrialdeko elite ekonomikoa eta politikoa dira eta elite hori hezten dute. Eta elite hori, jakina, oposizioan dago.

Venezuelako euskal komunitatearen gehiengoa harro dago euskaldunen oinordeko izateaz, baina ideologikoki Voxen eskuinean dago: euskaldunen ondorengoak arrazistak, klasistak eta chavismoaren aurkakoak dira.

#### »Oso kritikoa zara Venezuelako oligarkiarekin eta, oro har, oposizioarekin.

Burgesia kolonial, aberrigabe eta bizkarroia da, eta AEBen eskuetan utzi du herrialdea. Oposizioak, erabat –Washingtonen aginduetara–, irabazten duenean baino ez ditu onartzen hauteskundeak, eta ez du inoiz ezer eraikitze ahaleginik egin. Horrela izan da beti historian zehar.

#### »Zer iritzi duzu Europak, oro har, eta Espainiak, bereziki, Venezuelaren egoera honetan emandako erantzunari eta Juan Guaidó presidentetzat aitortu izanari buruz?

Europa zaharrak, beste behin, ohikoa duen zinismoa erakutsi du, ez baititu aintzat hartu NBERen ebazpenak eta nazioarteko harremanetan eskua ez sartzeko printzipioa.

Guaidók bere burua Venezuelako presidente izendatu du, eta, beraz, Guaidó aitortzea, estatu-kolpe bat legitimatzea da, eta AEBen strategiari segizio baldarra egitea. Eskuinak beti argi dauka zer egin, konplexurik gabe jokatzeko du eta gerraren alde egiten du apustu. Eta ezkerrek ez du aurpegiak erakusten. Eta, Espainia eragile politiko garrantzitsua ez bada ere, uste dut Pedro Sánchez presidentea eta Urkullu lehendakaria markatuta geratuko direla, Venezuelako oposizio kolpistari babesa eman izanagatik.

#### »Venezuela diktadura bat al da?

Nola izango da diktadura, Estatuak ez badauka gizartearen gaineko kontrolik, eta, askotan, ez eta Estatuaren beraren gaineko kontrolik? Herrialdearen kontrol ekonomikoa, sozial eta kulturala 1998ko bera da, eta oposizioak dauka bere eskuetan.

Venezuelari leporatzen diote diktadura komunista izatea, eta diktadura horrek errepresioaren bidez irauten duela eta askatasunik ez dagoela. Bada, ustezko diktadura horretan, jendeak inolako oztopo eta mugarik gabe eskura dezake informazioa: kable bidezko telebista dauka, 100 kanal baino gehiagorekin (nazioartekoak ere bai), telefonoa eta Internet ia doan dira...

Ustezko diktadura horretan, facebooken eta gizarte-sareetan sekulakoak esaten dira Maduroren aurka, inongo herrialdetan onartuko ez liratekeen astakeriak. Espainian, urrutira gabe, Mordaza Legea eskuetan, zigor-prozesuak abiatuko lirateke halakoen ondorioz.

Diktaduraren beste muturra da Venezuela. Herrialdean ordena eta kontrol oso gutxi dago, anarkiaren mugetara iristeraino.

#### »Zer diozu preso politikoei buruz, espetxeratutako oposizioko kideei buruz?

Espetxean dauden oposizioko kideak ez daude kartzelan beren ideengatik, jarduera bortitz edo kolpistengatik baizik.

Egin ditzagun alderaketak, berriro ere: Espainian politikari kataluniarrak espetxeratu dituzte, beren ideiak modu guztiz baketsuan bideratzen saiatzeagatik. Epaitzen ari dira orain. Legez kanpo utzi dira alderdi politikoak eta egunkariak itxi dira... Beraz, Espainia diktadura-erregimena al da?

#### »Azaltzen duzunaren arabera, Venezuelaren eraldaketa lehen eskutik ezagutu duzulako egin zinen chavista. Chavismoaren zer lorpen sozial nabarmenduko zenituzke?

2004an, Chávezek Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea (LPEE) berregituratu zuenean, petrolioaren prezioak gora egin zuen, eta, horri esker, Chávezen



